

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Ezintasuna duten hamar pertsonek bizimodu autonomoa eramaten laguntzen dien laguntzaile pertsonal bat dute dagoeneko

*Duela lau hilabete abian jarri zenetik, bizimodu independenteari laguntza emateko programak 40 pertsonari eman die arreta eta ehun bat prestatu ditu*

Lunes, 15 de diciembre de 2014

Lanean edo ikasten ari diren hamar pertsona ezinduk bizimodu autonomoa eramatea errazagoa dute laguntza ematen dieten laguntzaile pertsonalei esker, Nafarroako Gobernuak [programa](#) baten bidez. Eguneroko ohiko kontuetan ematen diete laguntza, esaterako: gorputza zaintzen, etxeko lanetan edo beren lantokietara edo ikasteko lekuetara joaten eta haietan laguntza ematen.

30-45 urte arteko emakumeak dira gehienak eta bizimodu aktiboa dute lan-arloan, baina duten ezintasunagatik, fisikoa oro har, beste pertsona baten laguntza behar dute erabaki duten bizi-proiektua garatu ahal izateko.

Hau da Nafarroako Pertsonen Autonomiarako Agentziak bizimodu independenteari laguntzeko programaren funtzionamenduko lehen lau hilabeteen ganean egindako balantzea; [Nafarroako Cocemfek](#) kudeatzen du eta 100.000 euroko finantzaketa du aurtengorako.

[Denboraldi horretan](#), 40 pertsonek Nafarroako Gobernuaren baliabide honengatik interesa agertu dute, eta beste ehun bat ere prestatu ditu, haietako asko ezinduak, laguntzailea pertsonalak, esaterako. Gaur egun, 14 laguntzaile pertsonalek hilean 90 ordu ematen dituzte programako onuradun bakoitzarekin, eta hark, egokiena iruditzen zaion laguntzailea hautatzen du, 80 bat hautagaik osatzen duten poltsa baten bidez.

Hautagai horiek bi profil dituzte. Alde batetik, unibertsitateko titulua duten gazteak, esperientzia gutxikoak eta bizimodu independentearen filosofiarekin sentsibilizatutakoak; eta, bestetik, ikasketa sozio-sanitarioak dituzten 35-55 urte arteko pertsonak, erdi-mailakoak edo lanbide-ziurtagiriarekin eta familiako zaintza-kontuetan esperientzia zabala dutenak.

Bizimodu independenteari laguntza emateko programa-pilotuaren fase horretako jardueraren balantzea gaur ezagutarazi dute prentsaurrekoan Nafarroako Pertsonen Autonomiarako Agentziko zuzendari-gerente Gemma Botínek, eta bizimodu independentearen bulegoko koordinatzaile Celina Domaicak. Bi horiekin izan dira ere, Silvia Guerra, programa honen onuradun den pertsona ezindu bat, eta baita

Víctor Jiménez ere, laguntzaile pertsonaletako bat.

### **Hiru bideoen aurkezpena**

Prentsaurrekoan hiru bideo aurkeztu dira ere, eta bertan Nafarroako Gobernuko bizimodu independenteari laguntza emateko programako hiru onuradunen testigantzak jasotzen dira: Silvia Guerra, Ana Artázcoz eta Rafael Jiménez-enak.

Hirurek beren bizi-proiektuen berri eman dute, eta nola behar duten, zenbaitetan eta beren ezintasunagatik, pertsona baten laguntza eguneroko zereginak egiteko nahiz haiek erabakitzen dituzten beste jarduera batzuk egiteko, beren kasa egin ezin dituztenak.

Bi minutuko bideoak Internet bidez eta sare sozialetan zabalduko dira, eta ondorengo helburua dute: bizimodu independenteari laguntza emateko programaren filosofia lehen pertsonan erakustea, eta aniztasun funtzionala edo mendekotasuna duten pertsonen "beren bizimoduei heltzeko" aukera ematea laguntza pertsonal edo teknikoaren bitartez.

Gaur arte egindako azterketen arabera, hamar pertsona onuradunek adierazi dute programa horri esker beren bizi-kalitatea eta autoestimua hobetu dituztela eta bizitza sozialen parte hartzeko aukerak areagotu.

### **Programaren hartzailleak eta bertan nola parte hartu**

Bizimodu independenteari laguntza emateko programan aitortutako ezintasunen bat edo mendekotasun-egoeraren bat duen pertsona orok parte har dezake, gradu-maila edozein izanda ere, baldin eta Nafarroan erroldatuta badago.

Gainera, bizimodu aktiboa izan behar dute ordaindutako lan bat eginez, edo lana modu aktiboan bilatuz edo goi-mailako ikasketaren bat eginez. Beharrezko gaitasuna izan beharko dute ere, beren kasa eskatzen diren zerbitzuak erabakitzeko, haien kontrola egiteko eta laguntza pertsonala emateaz arduratzen direnei aginduak emateko.

Programa hori baliatu nahi duten pertsona interesdunek Cocemfek kudeatutako bizimodu independentearen bulegora jo behar dute. Horretarako, ondorengo telefono-zenbakietara dei dezakete: 606 073 743 (Iruñerriko edo Nafarroako iparralderako) eta 645 756 806 (Erribera alderako), edo mezu elektronikoa bat idatzi [vidaindependiente@cocemfenavarra.es](mailto:vidaindependiente@cocemfenavarra.es). helbidera.

### **Programaren faseak**

Ezintasuna edo mendekotasuna duen pertsonak programa horretan parte hartzea eskatzen duenean, elkarrizketa pertsonal bat egingo zaio, eta bertan ekimena aurkeztuko zaio; haren bizimodu independentearen banakako plana zertan datza azalduko zaio berea egin dezan bere interes pertsonal nahiz profesionalen arabera.

Proposamen hori diziplina anitzeko talde batek aztertuko du (terapeuta, psikologo eta programaren koordinatzaileak osatutako taldea), eta emaitza pertsona interesatuarekin egiaztatutako da bigarren elkarrizketa batean. Hitzordu horretan behin betiko agiri bat adostuko da eta Nafarroako Pertsonen Autonomiarako Agentziarekin baliozkotuko.

Bizitza independenteari laguntza emateko banakako planak erabakiko du laguntzaile pertsonalak zenbat ordu sartu behar dituen astean onuradunarekin, azken horrek bere ohiko ingurunean bizimodu normalizatu bat egin ahal izan dezan, zer ezintasun- edo mendekotasun-maila duen alde batera utzita.

Horren ondoren, laguntzaile pertsonala bilatzeko, kudeaketa administratibo

eta bizitza independentea babesteko plana implementatzeko fasea hasiko da, eta aldiari behin jarraipena izango du.